


SOLASALDIAK

# Mariasun Landa




.

l

# Solasaldiak [21]

# Mariasun Landa



Elkarrizketa

Miel A. Elustondo

Marrazkiak

Maite Gurrutxaga

Argazkia

Zaldi Ero

2024



*Administrazioa Euskaraz* **Solasaldiak**

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa

Argitaldaria: Administrazio Publikoaren Euskal Institutua (IVAP)

Diseinua: Concetta Probanza

ISSN: 1576-5563

Lege-gordailua: BI-1141-93

Fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena, S.A., Araba k. - 20800 Zarautz



# Mariasun Landa


## Erran bat

Mariasun Landa Etxebeste (Errenteria, Gipuzkoa, 1949). Idazlea. Eta ba ote da, irakurleon artean, gure idazle honen libururik irakurri ez duen haur, gazte, heldu edo adin handikorik? (Eta, baldin badago, hainbat gaizto berarentzat, infernuko txikitoak esango lukeenez.)

## Erran bi

Oroz gain, haur literatura idatzi du, guztiok irakurtzekoa den hori.

Edo Mariasun Landak *Txikiaren handitasuna literaturan* liburura Michel Tournierren definizioa aldatu zue-nez, «Haur eta gazte literatura da haurrek eta gazteek ere irakur dezaketena».



## Erran hiru

Mariasun Landaren liburu parrasta, turrustan: *Amets uhinak*, *Kaskarintxo*, *Elisabete lehoi domatzailea*, *Joxepi dendaria*, *Partxela*, *Txan fantasma*, *Errusika*, *Iholdi*, *Izeba txikia*, *Alex*, *Kleta bizikleta*, *Potx*, *Julieta*, *Romeo eta saguak*, *Nire eskua zurean*, *Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean*, *Amona*, *zure Iholdi*, *Elefante txori-bihotza*, *Galtzerdi suizida*, *Krokodiloa ohe azpian*, *Marlene eta taxizapata*, *Haginak eta hilobiak*, *Festa aldameneko gelan*, *Ipurtargiak paradisuari*, *Inurrien hiztegia*, *Azken balada*, *Txikiaren handitasuna literaturan*, *Elsa eta paradisuari*, *Elefante txori-bihotza*...

—Esaterako, 1982koa du lehen liburu hura, *Amets uhinak*, eta iazkoak, berriz, berrienak: *Elsa eta paradisuari*, eta *Elefante txori-bihotza* –gogorarazi digu lehen oroitarazle zuhurrak.

—Baina zerrenda horretan bi –gutxienez bi, behintzat– ez dira hurrek irakurtzekoak, hurrek baino askoz helduagoek irakurtzekoak baizik –gogorarazi digu bigarren oroitarazle ziurrak.

Eta irakurleak eta oroitarazleak, orain bai, denak batera:

—*Festa aldameneko gelan* eta *Txikiaren handitasuna literaturan*...

—Eta *Inurrien hiztegia* nork irakurtzekoa da, bada? –Mariasun Landaren liburu-zerrenda luzetik ateratako arkakuso haren oharra. Errusika da, jakina.

—Eta *Puertas y ventanas abiertas* zer? –oroitarazi nahi izan digu hizkuntza politikara emana bizi den oroitarazle zimurrak.

(Eta gero baino gero oroitarazle gehiago ateratzen ari baitira munduko lau bazterretatik, bertan behera utzi da Mariasun Landaren liburuen zerrenda-festa, *sine die*, edo hurrengo liburua argitaratzen duen arte).

## Erran lau

Haur literaturan zaildutako idazleak autobiografia bat kaleratu zuen 2007an, Parisen igarotako urteak go-goan: *Festa aldameneko gelan (1968-1969)*.

Eta, hain juxtu, liburu harixe tiraka hasi gara Mariasun Landarekin hizketan.

—Jakin al daiteke erlijioa praktikatzen duzun?

1968. urtea zen.

## Erran bost

1974an Euskal Herrira itzuli, eta hasi zen lanean Zarauzko ikastolan. Ordurako, Filosofia eta Letretan lizentziaduna zen Mariasun Landa, eta ikastolan, berriz, irakasle tituludunak behar zituzten. *Quid pro quo*, Mariasunek titulua eskaini zion ikastolari eta, ikastolak, aldiz, euskara atzendua eguneratzeko aukera eman zion. Eta, horretan, ondoan izan zituen Anjel Lertxundi, Joxeantonio Ormazabal, Jesus Mari Olaizola 'Txiliku', Juan Martin Elexpuru, Imanol Urbieta...

—Joxean Ormazabal! –hots egin du lehen oroitarazle egoskorrak berriro.

—*Astoa ikusi nuen, betaurrekoekin / buruan txapela ta, gabardinarekin...* –ekin dio kantari bigarren oroitarazle burugogorak. Eta, zinetan, oroitarazle horrek burugogorkeria handiari esker du gogoan oraindik Joxean Ormazabalen kantu hura, Imanol Urbietak musikatu huraxe. *Astoa ikusi nuen, betaurrekoekin / buruan txapela ta, gabardinarekin...*

—Nik Joxean jarriko nuke lehenengo, ze nik beragandik ikasi nuen ikastolan ikasi behar nuena. Ez daukat hitzik Joxeani buruz hitz egiteko –salatu digu hirugarren oroitarazleak... (Baina, egiaz, Mariasun Landa bera ari zaigu, oroitarazlez mozorrotuta. Ezagutu egin dugu, hala ere).

### **Erran sei**

—Hil zen, gizajoa –atera zaio elefante txori-bihotzari, Joxeanen aipua aditu duen orduko.

—Uste dut ez zigutela heriotzaz abisatu –esan du orduan Mariasunek...

Momentuz, ez du besterik esan. Orduan, ordea, hego haizeak hatz puntekin ukitu dizkio ezpainak, eta esanarazi dizkio adiskide lagun handi bati idatzi zizkionak. Asun Balzola ilustratzailea zen delako adiskide laguna, eta haren heriotzatik urtebetera ari zen idazten Mariasun Landa: «Gogoan dut, orain dela urtebete [2006], bere heriotzaren berri izan genuenean, komunikabide askotatik deitu zidatela informazioa eta iritzia eskatzeko. Ez nintzen haiei kasu egiteko gauza izan. Nire baitan bildu nahi nuen, besterik ez, albiste hura barneratzen hasteko, berri hark egun batzuetan lurra sentitu ezinik utzi ninduen-eta, ilusioei eutsi ezinik, orri zurian idatzi ahal izateko kemenik gabe. Asunek eta biok ordurako ezaguna zen idazle/ilustratzaile tandem osatzen genuen, baina adiskide ere baginen. Batez ere, adiskide. Nekez osatu ahal izango dut hark utzitako hutsunea, erreferentzia saihestezina baitzen niretzat, solaskide paregabe eta ahaztezina. *Elefante txori-bihotza* ipuina eskaini nionean, hauxe besterik ez nuen jarri: Asun Balzola adiskideari. Horrela laburbildu nituen nire esker on eta estimua, baita lotzen gintuen ezkutuko konplizitatea eta hogeitau urte baino gehiagotan partekatutako pasadizo, bidaia, konfidentzia eta esperientziak ere.

Asun bilbotarra zen, nola ez. Gure artean behintzat ohikoa zen horri buruzko txisteak egitea. 1942an jaiotzen zen, familia ezagun batean, eta grafismoa ikasi zuen Arte Ederren Eskolan. 22 urte zituela auto-istripua izan eta elbarri geratu zen. Horrek erotik aldatu zuen bere bizitza. Guk ezagutu genuen Asun Balzola heldua ezin da ulertu zartada handi hori gabe. Bere nortasun borrokalaria, bere sormena, etengabe bizitza inguruan ematen zigun irakaspena edo bere obra plastiko eta literarioa ezin dira ulertu zoritxarreko ezbehar hori kontuan izan gabe».

—Uste dut ez zigutela heriotzaz abisatu! –orro egin du hainbatgarren oroitarazleak, Mariasunen hitzak bere eginez eta erreplikatu.

### **Erran zazpi**

Sari bezainbat ohore eta errekonozimendu jasoa da. Batean, obra jakin batzuen aldera emanak dira sariak; bestean, bere ibili oparoaren aitortza ditugu: Lizardi Saria (*Txan fantasma*), Euskadi Saria (*Alex*), IBBYren

Ohorezko zerrenda (*Iholdi*), Municheko Nazioarteko Haur eta Gazte Liburutegiaren Zozo zuria zerrenda (*Elefante txori-bihotza*), Espainiako Haur eta Gazte Literaturaren Saria (*Krokodiloa ohe azpian*), Donostiako Udalaren Hiritar Merezimenduzko Domina, Erreterria Hiriko Domina, Hans Christian Andersen Sarirako hautagai, Jakiundeko kide, Dabilen Elea Saria, Eusko Ikaskuntzaren Kultura, Arte eta Giza Zientzien Saria, Rosalia de Castro Saria, Maniseseko (Valentzia, Herrialde Katalanak) Merkataria Elkartearen errekonozimendua (*Joxepi dendaria*), Idazle Galego Unibertsala, Erreterriako Udalaren Mariasun Landa Sariak, Emakunde Saria, Gutun Zuria Bilbao Saria...

### **Erran zortzi**

«*Iholdi* (Erein, 1988) obra izan zen idazle honen garapen literarioaren giltzarria. Sinple, zehatz eta iradokiztaileak diren 16 ipuin laburrez osaturik, obra horrek estetika modernoagoa eman zion euskal literaturari, eta hitzaren zehaztasunarekiko irrika berezi bat argitara eman zuen. Harrezkero, obra honetatik sortuta, *Iholdi* pertsonaiak beste hainbat obra eman zituen argitara, hala nola *Amona, zure Iholdi* (Erein, 2010) edo *Marina* (Elkar, 2003). Marijose Olaziregi irakasle eta kritikoa Mariasun Landaren aldi honetako lanari Katherine Mansfield obrarekiko eta Raymond Carver autorearekiko dituen antzekotasunak aitortzen dizkio». (Wikipedia)

### **Erran bederatzi**

«Gehiegikeriak ere badu esanahi berezirik idazle honen poetikan. *Txan Fantasma* liburuko maitasun falta duten armairuko jostailuak, *Kleta bizikleta* liburuko askatasun eskubidearen aldarrikapenak biltzen dituen zoologiko bateko animaliak... bezalako obrak aurki daitezke adibide modura. Baina *nonsense* edo umore aldrebesaren generoaren adibiderik garbiena *Galtzerdi suizida* obra da, non bertako protagonista den galtzerdiaren suizidioa gehiegikeria, umore, ironia eta kritikaren arteko fusioaren eragilea den, abentura eta elementu magikoak gehituta; horrela, errealitatea iraultzen du hainbat ideia eta gertaera zentzugabekeriarekin erlazionatuz». (Xabier Etxaniz Erle, 2003)

### **Erran hamar**


—Beste zerrenda bat egin nahi dut! —hots egin du enegarren oroitarazleak hitza lotsagabe-lotsagabe hartuz, inork ez baitio hitza eman. Berak hartu, hala ere! Eta zer nahi ote du orain!?

—Zer dugu, zer zerrenda egin nahi diguzu? Egina dugu Mariasunen liburuen zerrenda aski asko osatu bat, egina dugu jaso dituen sarien, aitortzen, merezimenduen eta diren eta ez diren errekonozimenduen ere! Zer zerrenda-demonio egin nahi diguzu? —zitalduta, petralduta, bere onetik irteteko zorian oroitarazle anonimoa.

—Itzulpenena! —hots egin du enegarren oroitarazleak.

—Itzulpenena!? —galdetu dute harri eta zur eta zur eta harri oroitarazle guztiek batera.





—Bai, itzulpenena! –enegarren oroitarazleak.

Eta denak isilik baitira, arrosarioa errezatzen hasi da, baina ez arrosario-arrosarioa, oroitarazle horrek ez baitu, Mariasun Landak bezala, erlijioa praktikatzen. Alegia, Mariasunen liburuak hainbat hizkuntzataraz itzuli dituztela, eta hizkuntza horien arrosario-zerrenda aletu du oroitarazle horrek.

—Gaztelania, katalana, galiziera, bretoia, esperantoa, ingelesa, errusiera, okzitaniera, aranera, alemana, koreera, frantsesa, albaniera, arabiera, esloveniera, poloniera, italiara... Gaztelania, katalana, galiziera, bretoia, esperantoa, ingelesa, errusiera, okzitaniera, aranera, alemana, koreera, frantsesa, albaniera, arabiera, esloveniera, poloniera, italiara...

—Kiribilean sartu zara! Alde hortik! Atertu hadi! –orro egin diote enegarren oroitarazleari gainerakoek, denek batera.

### **Erran hamaika**

Nahi beste hizkuntza, nahi beste itzultzaile, nahi beste argitaletxe, nahi beste irakurle... Mariasun Landak, eta, ororen buru, bere lanek, munduan egin duten ibilian. (Ibili munduan bai, baina Mariasun Landaren kasuan, txapelik gabe).

### **Erran hamabi**

Eta holaxe dabil gaurko egunean ere, batean idatzi, bestean jakintza transmitituz, bizikletari eraginez –irakurriz eta idatziz–, aitortzak jasoz, elkarrizketak eskainiz, gogoeta partekatuz, adiskide lagunak zainduz... «Ai, zeure umore eder horri esker ezagutzen zaitut!».

—Umorea? Ze umore, gero?! –enegarren oroitarazle ernegarriak. Bat eta bera da beti.

—Mariasunen umorea, bada! Irakurri, eta jakingo duzu. Mariasunek esana da: «Umorea da nire onena. Neurea dut, hori ez da inon erosten! Baina amaren aitak, aitona Etxebestek, adibidez, eta amak berak ere bai, oso umore fina zuten, zorrotza. Bertsolariaren etorria zuten. Umore xumekoak ziren, grazia handikoak. Eta ni ere horrelakoxea naiz».

### **Erran hamahiru**

Ez da hamahirurik. Oroitarazle zuhurra saiatu da hitzari hitz, saiatu da oroitarazle ziurra ere, oroitarazle zimurra bezainbat... Saiatu da oroitarazle zaharra, eta hainbatgarrena, eta enegarrena... denek nahi izan dute hamahirugarren errana bere egin, baina tradizioak agintzen du ez dela hamahirurik. Ez da hamahirurik izango, Mariasun Landak hurrengo ipuinean besterik idatzi ezean, alegia.

# Mariasun Landa

## «Batuetan harrotasuna sentitzen dut noraino iritsi garen ikusita»

Mariasun Landak lan autobiografikoa argitaratu zuen duela hogeit hamar urte, *Festa aldameneko gelan* (Erein, 2007). Dozena erdi ataletan banaturik, «Oso gaztea nintzela» dio lehenaren tituluak. Eta hasten da: «Ez da erraza gogora ekartzea juxtu noiz sortu zitzagun asmoa, eta nola joan zen guregan erretzen eta errotzen. Eta askoz zailagoa, bat gaztea baldin bada eta buruan hainbat desira kontrajarri baldin baditu».

Oroimenaren museoan gordetako pasartea 1968ko maiatzaren azkenetan kokatzen da. Nire gelan nagoela, ustekabean, aita sartzen zait gelara eta ezohiko galdera jaulkitzen dit:

«—Jakín al daiteke erlijioa praktikatzén duzun?».

1968an aitak Mariasun Landari egindako galdera horixe abiapuntu, ekin diogu solasari...

«Jakín al daiteke erlijioa praktikatzén duzun?».

■ Xelebrea da nola heldu zion gai horri gure aitak. Askotan ez dakigu nola heldu gai batzuei, eta gure aitak ere ez zuen jakingo, baina mezatarra joaten ez bazinen, horrek zer edo zer esan nahi zuen. Nik, bai orduan eta bai orain ere, nahiz eta agnostikoa

izan, errespetu handia izan diot espiritualitateari. Ez nuen erlijioa praktikatzén, are gutxiago erlijio katolikoa, zeren ikusi duguna ikusita, esan beharrik ere ez dago.

**Espiritualitatea, aldiz, bai.**

■ Gizakiak berezkoa du. Gizon-emakume izatea izaki espiritual izatea da, eta kultura bakoitzak, era batera edo bestera, bere modura adierazi du espiritualitatea garai bakoitzean. Historiaurrean ere, zertan jaso zituzten menhir eta cromlech horiek? Transzendentziaren misterio hori, alegia. Eta espiritualitatea oso gertu dago artetik. Alde horretatik, espiritualitate guztiak errespetatzen ditut. Erlijioa, berriz, espiritualitatearen konkretzioa da.

**Garai hartan, ez zenion hori dena esango aitari, ala?**

■ Ez, nahikoa lan nuen erantzunda! «Ez!».

**Liburuak eskaintza horixe dakar: «Nire gurasoei».**

■ Uste dut liburuan kontaktzen dudán garai horretantxe hasi ginela bereizten, gurasoak alde batetik, ni neuretik. Independizatzea esaten da, baina independizatze hori alde bikoa da: gurasoena,

eta norberarena. Halako batean, askatasunaz baliatzeko garaia heltzen zaigu, eta ondo kudeatu behar izaten da libertate hori. Gurasoei eskaini nien liburua, beharbada sasoi hartan nitaz oso arduratuta ibili zirelako. Ez zekiten nondik nora nenbilen.


### Gizarte-laguntzaile ikasketak eginak zenituen ordurako. Arrastoa sartuta, esateko moduan.

■ Oso ipurterreak ginen, kezkatuta bizi ginen, kezka soziala bizi genuen, politikoa, kulturala... Garaia ere halakoxea zen! 1968an giroa oso bero zegoen hemen. Uda hartan [Meliton] Manzanas hil zuten [1968, abuztuak 2, Irun]... Gizarte-laguntzaile ikasten ari nintzen garaian, asko ikasi eta asko disfrutatu nuen. Oso irakasle onak izan nituen: Juan Mari Bandres, Jose Ramon Rekalde, [Alfredo] Tamaio Aiestaran jesuita, Tere Arozena... Karrera bukatu berria zen Tere, oso lotsatia, baina berak hitz egin zigun lehen aldiz Simone de Beauvoirren *Bigarren sexuaz*. Hemezortzi urte betetzeko zorian ginen, eta liburu hartaz hitz egin zigun Terek! Liburu hura ez zegoen hemen eskuratzetik, Buenos Airesen argitaratu zuten, 1965ean.

### Giroa oso bero zegoela esan diguzu...

■ Bai. Laster, Burgosko prozesuaren hastapena etorri zen. [Juan Mari] Bandres abokatuetako bat izan zen, eta irakasle genuenez, informatzen gintuen. Oso ipurterreak ginen, esan dizut. Fabrikan ere lan egin genuen. Gizarte-laguntzaile izateko praktiken barruan sartzen zen hura. Haatik, bagenuen gogo bat ere, egiaztatu nahi genuen ea benetan kooperatibismoa kapitalismoaren alternatiba zen, edo ez. Horrela hitz egiten genuen: «Kooperatibismoa kapitalismoaren alternatiba da, edo ez da?». Horrelaxe.

Sasoi hartan, artean Francoren diktadura garaian, gaztelaniaz egin zenituen ikasketak. *Festa*



*aldameneko gelan irakurritz jakin genuen etxean ere gaztelaniaz hitz egiten zenutela. Harritu egin nau...*

■ Harritu? Gipuzkoako hizkuntza-soziologia uste baino anitzagoa izan da, nik ikusi dudanez. «Ama-hizkuntza euskara», esaten da, baina horrek ez du esan nahi euskaraz biziko zarenik. Nire kasuan, aitona-amonak oiartzuarrak genituen. Erdara kaxkarra zutela jaitsi ziren Errenteriara. Eta zer izan zen Errenteria 50eko hamarkadan? Inbasioa. Zortzi-bederatzi fabrika zituen Errenteriak garai hartan. Manchester txikia! Galtzaraborda eta horiek, zelaia zirela ezagutu nituen! Fabrikak irekitzearekin batera, emigrazio ikaragarria jaso zuen Errenteriak. Ez Errenteriak bakarrik, baita gure herriak ere. Gure izebek dendatxoa zuten herrian, eta esaten zuten zenbait bezeroren aurrean ezin ziotela batak besteari euskaraz hitz egin, laster esango zietela *¡Habla en cristiano!*



### Gaztelaniaz hitz egin behar...

■ Hara, gure gurasoak eta Xabier Leterenak lagunak ziren. Amak beti esan izan zuena da: «Gu Oiartzunen bizi izan bagina, euskaraz biziko ginatekeen. Baina Errenterian, ez». Eta eskolan ere, Errenterian, euskararen arrastorik ez genuen. Eta erakusten zizkiguten kantak ere, Madrilekoak-eta ziren: *Por la calle de Alcalá...*-eta, munduko gauzarik naturalena balitz bezala! *En el monte Gorbea...* kanta genezakeen, ezta? Bada, ez. Hala ere, anaiaren kasua diferente samarra da. Hura askoz gehiago egon zen aitona-amonekin, eta ez zuen euskara galdu. Gaur arte mantendu du. Dena den, birziklatu egin da, alfabetatu egin da. Ni, berriz, txikitan baldar hitz egiten hasi nintzen, eta auzoko batek –maistra zen, eta hamar ume-  
ren ama!– esan zion gure amari hobe zuela niri hizkuntza bakar batean hitz egin. Horixe erremate teorikoa! Eta txikitatik erdaraz ni! Pena handia sentitu dut beti. Liburu horretan ere [*Txikiaren handitasuna literaturan*, Erein, 2018] esaten dut: «zauri linguistikoa». Euskaraz hitz egiteko gauza nintzen, baina hizkuntza bakarrean hitz egiteko teoria hura tarteko, gaztelaniaz hazi nintzen.

### Aizu, eta zergatik erabaki zenuen justu Parisera joatea?

■ Gure imajinario kolektiboan, Paris zen gunea! 1968ko urrian joan nintzen Parisera, eta urte hartakoa da Pariseko Maiatza. Hala ere, ordurako, eskolan frantsesa ikasi genuen zerbait, eta Silvie Vartan, Johnny Halliday, Françoise Sagan-eta horien jarraitzaile ginen. Espainiako musikan bezainbeste jantzia nago orduko Frantziako musikan, bai garai hartakoan, eta bai gerokoan ere. Frantzia eta Italia ziren gure erreferenteak; kantagintzan, esan nahi dut. Ingelesak, artean, ez ziren hona azaldu. Beatlesak geroago heldu ziren. Lehengoan entzun nuen irratsaio batean, Beatle-

sak 1964an heldu zirela lehen aldiz New Yorkera, eta gure artera, berriz, askoz geroago.

### 68ko Maiatza...

■ Etxean nengoela izan nuen hango berria, te-  
lebistan. Uste dut [68ko] Maiatzaren balantze ezkorra egiten dela, eta egia da politikoki ez zuela emaitza onik izan, baina kulturalki sekulakoa izan zen. Eta Berlinen ere antzekoa gertatzen ari zen, eta Kalifornian... Mugimendu orokorra zen. Espainiara, berriz, Franco hil ondoren heldu zen. 68ko Maiatza izugarria izan zen, eta, lehen-lehenik, frantziarrentzat. Nik hantxe jakin nuen zer zen utopia, bizitza beste modu batekoa izan daitekeela. Eta datu bat: karrera osoan [Filosofia eta Letrak] ez nuen azterketa bat bera egin. «Etengabeko kontrola», esaten zioten. Batean, lanak idatzi behar zenituen; bestean, ahozko aurkezpenak... Ahozko aurkezpenak egin behar nituenean, hura kakalarria!

### Jendaurreko aurkezpenak, esan nahi duzu?

■ Bai. Hura dardara! Gero, nik ere, unibertsitateko irakasle izan nintzenean, ez nuen azterketarik jarri. Irakatsi zidaten bezala irakatsi nuen: lanak, eta ahozko aurkezpenak. Hala ere, badakit zenbait diziplinatan azterketak beharrezkoak direla. Literaturan, berriz, lanak eta aurkezpenak eginda, nahikoa izan liteke. Honetara etorri garenez gero, esango dizut: unibertsitatean banituen zenbait kide, notak jartzeko garaian 7,3 jartzen zutenak, edo 6,9... Nik ez dut hori literaturan ulertzen. Izan ere, zoritxarrez, literatura ez da hain gauza inportantea.

### Ez da inportantea?

■ Behin, mediku batekin honetaz hizketan aritu nintzen. Gizon kultua zen, oso jantzia, eta hone-

## Xabier Lete

«Poeta zerura iritsi zen baina, izena zerrendan begiratu eta ikusi zutenean, esan zioten:

—Existenzialista, tormentatua, “bai baina ez, baina bai”... Ez onartua.

Poeta infernura iritsi zen eta, zerrendan bere izena ikusi, eta esan zioten:

—Onbera, sentibera, solidarioa, denek maite izan zuten... Ez onartua.

Poeta purgatoriora iritsi zen, baina han atea ere ez zioten ireki:

—Ez duzu zer purgarturik! Euskal Herri osoak kantatzen dio! Beraz, ez gora ez behera, Ez gertu, ez urrun. Guztiekin eta inorekin ez. Harrituta iritsi zen Poeta Iraganaren Gauzen Oroitzapenen Herrialdera, non bizi baita izan zena eta izan zitekeena, desioa eta amestutakoa, benetakoa eta irudikatua, eta beldurrez jo zuen atea.

—Aurrera, Xabier, zure zain geunden.»

(Mariasun Landa, “Xabier Lete: gezur eta egia gurea” omenaldia, Donostia, 2020)

taz eta hartaz hitz egin ahal izaten genuen. Esan nion ikasleei ez niela azterketarik egiten, eta berak erantzun zidan berari ezinezkoa zitzaiola halakorik egitea: «Test gisako azterketak egiten ditugu, eta ez du balio inork tumorea eta kistea nahastea, bizitza dago jokoan!». Kasu horretan, bai. 7,3 edo 3,7 batek zentzua izan lezakete. Baina literaturan ez. Ez zaizu iruditzen?

...

■ Literatura irakurtzea da, ulertzea, besteri komunikatzea, konparatzea, hau eta hura ikastea... Gauza asko sartzen dira hor. Humanismoaren adarra da literatura! Eta, bestetik, nire ikasleen kasuan, ikustekoak ziren haien lanak! Irakurtzekoak! Onak, esan nahi dut! Gainera, oraingo PowerPoint-eta horiek erabiltzen zituzten, eta aurkezpen bikainak egiten zituzten. Nik Filosofia eta Letrak ikasi nuen, eta horrelaxe ikasi nuen literatura: irakurriz, lanak idatziz, ahozko aurkezpenak eginez... eta pozik. Eta, bestalde, unibertsitatean irakasle zarela, inork ez dizu ezer esaten, eta, beraz, hasi eta buka, ikasleei azterketarik eragin gabe bete nuen nire unibertsitateko irakasle lana.

**Urtebeterako joan zinen Parisera, frantsesa ikastera, baina lau bat urte egin zenituen bertan, eta unibertsitate-ikasketak ere egin zenituen.**

■ Urtea egin, eta hona itzuli nintzen, eta berriz joan, unibertsitatean ikastera. Eta ikasle bizimodu egin nuen gutxi gorabehera, lan eginez, oso oso asetikoa biziz, eta zoriontsu. Eta dendetako erakuslehoetan arropari begira ibili gabe! Niretzat han dena zen liburutegietan ibili beharra! Lehenengo, moja-erresidentzia batean egon nintzen, 19. *arrondissement*-ean [barruti]. Denbora gutxi egon nintzen han. Auzoan denak beltzak ziren. Huraxe multiarrazismoa! Eta neure buruari galdetzen nion: «Eta non daude, bada, Johnny



Halliday eta Silvie Vartan, eta Françoise Sagan eta Françoise Hardy?!». Inon ez! Nire inguruan ez, behintzat!

#### **Eta, orduan, zer jende modu ibili zenuen inguruan?**

■ Han dena zen antifrankismoa eta emigrazioa. Ni ez nintzen joan emigranteekin ibiltzera, baina horixe tokatu zitzaidan, han zebiltzan emigrante guztiekin ibiltzea. Eta pozik! Ehun mila espainol omen zeuden Parisen garai hartan, eta *conciergerie* [atezaindegi] guztiak Espainiatik hara joandako emakumeen esku zeuden, eta *femme de ménage*

[neskame] gehienak ere espainolak ziren. Beharbada, portugesen bat ere izango zen... Askotan pentsatu dut emakume haiek botere handia zutela. Dirua egitea zuten helburu, herrira itzuli eta etxea egin ahal izateko. Eta beste emakume batzuen nagusi izateko! Izan emakume latinoen nagusi, izan errumaniarrenak, edo batek jakin zein nagusiak.

#### **Antifrankismoa Parisen, aipatu duzu...**

■ Gazte asko zebilen han, dirurik gabe, eta panfleto askorekin. Ez ziren abertzaleak, ezta ETAkoak ere. Liburuan [*Festa aldameneko gelan*] agertzen



direnak, adibidez, Alderdi Marxista-Leninistakoak ziren, gero FRAPekoak izango zirenak. ETAkoren bat ezagutu nuen, hala ere. Muga ere pasatu nuen, praktikak panfletoz forratuta!

### **Idazle izan nahi zenuela esaten duzu liburuan, eta egunkaria ere idazten zenuela...**

■ Urte askoan idatzi dut egunerokoa. Badira urte batzuk utzi niola egunkaria idazteari, baina koarderno asko idatzi ditut, eta orain ez dakit zer egin hainbeste materialekin!

### **Kar-kar... Eta zer dela-eta izan nahi zenuen idazle? Nondik sortu zitzaizun ideia hori?**

■ Ez zen ideia, zen errealitatea! Eskolan, matematiketan gaizki moldatzen nintzen. Bestean, estu eta larri. Zer egiten nuen ondo? Idatzi. Eta ikastetxean, Errenteriako mojetan: «Ai, Landa, ze idazlan eder! Irakur ezazu denon aurrean Ama Birjinari idatzitako orazio hori». Eta Landak zutik irakurri behar denen aurrean: «O, Maria!...», eta nik hankak dardarka, eta ikaskideak barrez lehertu beharrean, ni trantze hartan ikusita. Bel-dur eszenikoa, ezta? Askotan esaten didate, «zuk erraz egingo duzu, jendaurrean hitz egiten zailduta zaude eta». Baita zera ere, zailduta!

### **Kar-kar...**

■ Txikitan gaixotu egiten ninduen jendaurrean hitz egin beharrak!

### **Kar-kar... Eta umore hori? Gauzak kontatzeko duzun gatz hori, nondik jaso duzu?**

■ Horixe da nire onena! Neurea dut, hori ez da inon erosten! Baina amaren aitak –aitona Etxebes-tek, adibidez–, eta amak berak ere bai, oso umore fina zuten, zorrotza. Bertsolariaren etorria zuten. Umore xumekoak ziren, grazia handikoak. Eta ni

ere horrelakoxea naiz. Badut lagun bat –memoria galtzen hasita dago–, kalera ateratzen dugu, eta hau eta hura kontatzen diot, eta haren algarak! Eta esaten du: «Ai, zeure umore eder horri esker ezagutzen zaitut!».

### **Horixe inor identifikatzeko biderik ederrena!**

■ Bai, polita. Ez izenik gogoratzen du, ez besterik, baina barre eginaratzen diot, eta ezagutzen nau. Eta, nonbait, badut zera hori. Eta idazteko garaian, berdin, umorea oso gauza berezia da. Lehengo batean, Eugenio [Eugenio Jofra Bafalluy, Bartzelona, 1941-2001] umoregile katalanaren gaineko dokumentala ikusi nuen. Ikusgarria. Eta tristea ere bai. Alegia, oso zoritxarrekoak izan gaitzeko, eta, hala ere, hortxe umorea, defentsa. Tira, nor bere defentsa mekanismoak ditu, eta nire kasuan, umorea dut defentsa horietako bat. Eta umorearen gaia atara da, esateko dardarka hasten nintzela denen aurrean zutik idazlana irakurri behar nuenean. Alegia, antzerkia egiteko ez nuela balio.

### **Kar-kar...**

■ Eta, hortaz, zertarako balio nuen? Idazteko! Erraz egiten duzu, nekerik gabe, gustatzen zaitzu, nota onak ateratzen dituzu horretan... Eta idazle izateko ametsa egiten duzu! Eta, bestalde, oso irakurzalea nintzen. Sentimendu hori, ezta? Zerbait irakurri, eta «hau idatzi duena ere, artista galanta!». Nik ere halakoak idaztea amesten nuen. Holaxe egiten da bat idazle. Eta oso gauza merkea da, ez diozu inori ezer eskatu behar, gurasoei-eta: «Tronpeta erosiko didazue? Tronpeta-jotzaile izan nahi dut-eta». Edo eskulturagilea, edo pianista... ez, ez... Idazle izateko ez diozu inori ezer erosteko eskatu behar, oso merkea da, hori ere egia da. Nik, esate baterako, ez dut izan hainbat aukera hau edo hura izateko.

## Balio al du?

«Matematikako edo ingeleseko edo historiako liburukote eta apunte zirriboratuak baztertuz abiatu zinen folio zurian barrena (...)

Dena ondo zihoan, emozio berezi batek harrapatua idazten zenuen eta presa eta grina handiz izkiriatzera behartua sentitzen zinen, gazte garaian idatzi behar den moduan bezala, alegia.

Utz iezadazu imajinatzen, zu baino zaharragoa baino ziur asko ez zuhurragoa naizelako, poliki-poliki, idazteko erritmoa apalduz joan zitzazula, Tren zahar baten antzera zenbait estazio eta apeaderotan puf, puf, puf, gelditzen hasi zitzazula idazteko etorria... Lehendabizi, Nekearen Geltokian geratu behar izan zenuen, lepoko mina, bizkarrekoa, ipurdikoa eta abarrekoa logura apur batekin batera... Baina, kafe bat hartuz, Dunhill zigarro pare bat errez, eta leihotik kanpoko zuhaitz malenkoniatsuetan begiak pausatuz, bidaiaraitzeko adina indar hartu zenuen. Geroxeago, denbora aurrera zihoan bezala, narrazioaren argumentuan bertan aurkitutako oztopo batzuek geldiarazi zintuzten Zalantzaren Apeaderoan, non, bat-batean, ordura arte idatzitakoak istorio koherente eta interesgarria osatzen ote zuen zalantzaren ziztada bizi-bizia sentitu izan zenuen. *Idazten ari naizenak balio al du?*, galdetu zenion zeure buruari. Horrek atzera jotzera behartu zintuen, paragrafo batzuk ezabatu, sekuentzia batzuk aldatu, berrukitu pare bat egin behar izan zenituen bidaiarekin jarraitu ahal izateko...».

(Mariasun Landa, *Txikiaren handitasuna literaturan*, "Baldin eta azterketa-bezpera egun batez ikasleren bat..."; Erein, 2018)

### Orain, berriz, idazle-eskolak ere sortu dira...

■ Bai, badakit. «Idazle-eskola»... asko esatea da, beharbada. Jendeak bere barnean piztuta duen desio hori nola bideratu da kontua. Eta idazteari beldurra kentzea, jolastzat hartzea... Urteak daromatzat horretaz hitz egiten EHUren Udako Ikas-taroetan. Deitzen didate, eta joaten naiz. Gustura, gainera. Neure esperientziatik hitz egiten diot jendeari. Hala ere, ezin dugu pentsatu idazten hasi, eta *Ulises* idatziko dugunik. Ez da-eta egia. Baina

espresatu egingo zara, komunikatu, eta gustua hartuko diozu literaturari, eta jakingo duzu, edo jabetuko zara, zer duen literaturak gustagarri. Izan ere, askotan, entzuleek bestelako mezuak jasotzen dituzte idazleonek partetik: «Asko sufritzen da... Ez dakit zenbat aldiz jarduten dudan testu bat bera zuzentzen... Komentura joaten naiz idaztera...». Ez, bada! Hori esan ordez, nik esaten dut idazteak momentu batzuk oso-oso hunkigarriak dituela, autosatisfazio handikoak.


**Idazle-eskolekin batera, irakurle-eskolak egin behar direla esan zidan lehengoan idazle batek; idazle gehiago dagoela, irakurle baino.**

■ Irakaskuntzan aritu nintzenean, horixe esaten nuen beti: «Irakurtzea eta idaztea bizikletaren bi gurpilak dira, ontzi komunikatuak». Idazle-eskola bakarra irakurketa da, baina, hala ere, idazle-eskolak oso ondo datoz bataren eta bestearen lanak konparatzeko, bataren eta bestearen testuak irakurtzeko, entzuteko, zeren oso gauza jakina da, begi bistakoa, baina irakurlerik gabe ez dago literaturarik. Kontua ez da norberak etxean idaztea, eta idatzitakoa tiraderan sartzea. Hori egiten duena ez da idazle, oraindik. Idazle izateak bestelako *alter ego* bat presente egotea eskatzen du, hau da, irakurlea. Nahitaezkoa da komunikazio hori, eta horregatik erabiltzen dut ontzi komunika-

tuen irudia. Eta non ikasi? Literatura liburuetan! Irakurritz!

**Nahitaezkoa da idazlearen eta irakurlearen arteko komunikazioa, esan duzenez.**

■ Horixe pentsatzen nuen, eta jarraitzen dut pentsatzen. Eta unibertsitatean, ikasleen artean baten bat hasten zenean, «bai, idazten dut, baina neuretzat gordetzen dut» eta halakoak esaten, laster esaten nion hori ez zela literatura, egitate literarioak irakurlea exijitzen duela, eta irakurleak zuk egindako lanari buruzko nahi beste interpretazio egingo dituela, horixe baita artea: idazleak testua idaztea, eta irakurleak bere modura ulertzea eta interpretatzea. Azkenean, interpretazio mundua da literatura, eta idazlearen eta irakurlearen komunikazio horretan dago artea.



## Horretaz jabetua zinen Parisetik itzuli eta Zarauzko ikastolan lanean hasi zinenean?

■ Ez... Kar-kar... Zarautzen hasi nintzenean, zuk ez dakizu zenbat gauza nekizkien! Egin berria nuen karrera amaierako tesia –tesi txiki bat, nahi baduzu–, utopiaz eta iraultzaz.

## Hara, bestea!

■ Oso gai maitea nuen, mugimendu utopikoak-eta. Pariseko emakume klub bat hartu nuen aztergai, Frantziako Iraultzaren garaian. Horrek ekarri zidan, besteak beste, Pariseko azkeneko urtea Iraultza ikasten ematea. Ikasten, eta gozatzen! Lekuz leku ibili nintzen Parisen, Iraultzaren jazoerak gertatutako tokiak bisitatzen, *Le Faubourg Saint-Antoine*-eta, hantxe biltzen baitziren emakume haiek. Urte zoragarria izan zen, orduantxe esperimentatu nuen ikertzearen plazera, eta, bestalde, hortxe bukatu zen nire ikerketa, geroztik ez nintzen-eta ikertzen aritu. Baina hasten zara gai bat ikertzen, eta sakontzen, eta ez duzu inoiz bukatzen. Liluragarria da! Bestalde, Frantziako Iraultza ikasbide politiko ikaragarria izan nuen. Asko ikasi nuen. Jabetu nintzen nola osatzen den poliki-poliki utopia bat –desio hori, alegia–, nola gauzatzen den, eta nola akabatzen den. Gero, Euskal Herrira etorri nintzenean, gauza bera sumatu nuen.

## Zer esan nahi duzu, «gauza bera»?

■ Gizartean denak du muga bat: «Honaino heldu zaitezket!». Frantziaren kasuan ere, ahal zuen lekura heldu zen Iraultza. Ez gizarteak ez botereek egin zezaketen gehiago. Baina, bitartean, erabat aldatu zuten bizitza: hilabeteen izenak aldatu zituzten, jai guztiak kendu, erlijio katolikoa ezabatu... Benetan izan zen iraultza, baina iraultza utopikoa! Horren ondoren, gainbehera etorri zen. Iraultza ikertzen ari nintzela ohartu nintzen utopia politikaren etsaia dela. Utopia politikaren

eremura eramaten hasten zarenean, era berean, utopia horren bukaera prestatzen ari zara.

## Iraultzatik eta utopiatik alde egin, esateko moduan, eta itzuli zinen Euskal Herrira. Zarauzko ikastolan hasi zinen lanean. Zer dela-eta?

■ Euskaraz ikasi nahi nuen! Zu ez zara jabetzen, zu azpeitiarra zara, eta normala iruditzen zaizu denok euskaraz egitea, baina hemen ez zegoen euskara non ikasi! Anjel Lertxundi ezagutu nuen, hura Zarauzko ikastolan ari zela, eta tituluak behar zituzten. Irakasle asko zegoen, baina titulaziorik gabekoa. Eta, tituluaren truke, irakasle izan nintzen. Ikastolan hasi aurreko uda osoa udalekuetan eman nuen, umeekin euskaraz hitz egiten, ikasten, trebatzen. 1973-74 ikasturtea izango zen.


## Franco hil aurretik, betiere.

■ Bai, eta gogoratzen naiz nola etortzen zitzaigun bisitan inspektorea [hezkuntza ikuskatzailea], eta zein inportante zen momentu horietan Manolo Urbietara, edo Basilio izeneko hura, Lankide Aurrezki Kutxakoa. Basiliok abisu ematen zigun: «Inspektorea etortzekoa dela jakin dut!». Eta, ikasgelan, ikurrinak paretatik kentzen hasi behar izaten genuen, gurutzea jarri... Ahaztu egin zaigu, baina horrela ibiltzen ginen. Eta nire ondoko maisua ez baitzen legala, nolabait esateko –titulurik gabekoa zela, alegia–, joaten zen Azken Portun gora, eta gelditzen nintzen ni haren gelan, eta deitzen genion Manolo Urbietari... Kar-kar...

## Kar-kar...

■ Eta biltzen genituen ume guztiak, hartzen zuen Manolok gitarra, eta grin-grin-grin!, hantxe hasten ginen denok kantari: *Txoria nintzela, txoria nintzela, sinistu nuen sinistu...* Eta etortzen zen

## Mariasun Landaren bizikleta



«Berrogei urte baino gehiago dira nire bizitzaren parte handi bat literaturaren jirabiran dabilela. Idaztea beti izan nuen gustuko eta idazle izatearekin egiten nuen amets. Gaztelaniaz hasieran, frantsesez geroxeago, eta euskaraz beranduago. Neure bizitzaren bizkarrezurra izan da idazketa, neurri handi batean. Irakaskuntza, bestalde, ogibidea baino zerbait gehiago izan da niretzat. Komunikazio eta transmisio-iturria, neure errealitatea bete eta aberastu duena. Bi alderdi horiek beti konparatu izan ditut plazerez eragiten nien bizikleta baten pedalekin: literatura praktikatzea eta irakastea, testuak ulertzea eta ekoiztea.»

(Mariasun Landa, *Txikiaren handitasuna literaturan*, "Hitzaurrea", Erein, 2018)

inspektorea, eta: «Nola kantatzen dutelakoan ume hauek!»... Horrelaxe! Kar-kar... Zoragarria! Inoiz alzheimerrak harrapatzen banau eta hori dena ahazten bazait, zer pena! Anekdotak bat kontatuko dizut.

### Faborez.


■ Gure aita Banco Guipuzcoanoko langilea izan zen beti. Lana zuen herriz herri ibiltzea, sukurtsalak ikuskatzen-edo. Egun batean, Zarautzen zela, alabak non egiten zuen lan ikustera joan nahi izan zuen. Eta Azken Portura abiatu zen, gure ikastolaren etxabea non ote zegoen jakin nahita. Ni, orduantxe, menditik-edo bueltan, umeekin. Eta auzokoak, batzuk eta besteak, urduri: «Inspektorea etorri da, inspektorea etorri da!»... Eta inspektorea, gure aita izan! Bankuko langilea, eta beti alkandora zuria, gorbata, jaka jantzita... Auzoko guztiak, aita inspektorea zelakoan! «Ez, ez, ez da inspektorea, gure aita da!», esan behar izan nuen.

**Zarauzko ikastolaren garaiak hitz egiten duzun guztietan, behin eta berriz eta askotan aipatzen dituzu Anjel Lertxundi, Imanol -edo Manolo-Urbieta...**

■ ...eta Joxean Ormazabal!

**...eta Joxean Ormazabal.**

■ Bera jarriko nuke lehenengo, ze nik Joxeanengandik ikasi nuen ikastolan ikasi behar nuena: nola tratatu umeak, nola antolatu gela... Bata bestearen ondoan lan egitea tokatu zitzaigun. Bigarren mailako irakasleak ginen biok. Bera zen 2.A gela, eta ni, berriz, 2.B. Ni goi mailako ikasketak egitetik nentorren –seguru nago haurrak gustuko izango nituela, eta haur literatura ere gustatuko zitzaidala, dudarik gabe–, baina Joxeanekin ondoz ondo lan egitea... Ez daukat hitzik Joxeantoniori buruz hitz egiteko: hain zen ona, atsegina, krea-tzailea; berak asmatutako kanta-eta... Izugarria zen. Barre handiak egiten nituen nik Joxeanekin.



### Gatz handia zuen Joxeanek.

■ Zarautzen bizi ez ginen irakasle batzuek elkarrekin bazkaltzen genuen. Tripa ondo bete, eta gelara berriz. Sukaldea geuk jasotzen genuen, hala ere –irakasleok, esan nahi dut–, binaka, eta niri Joxeanekin tokatzen zitzaidan. Oraindik gogoratzen naiz, espartzua hartu eta nola saiatzzen zen ontziak ondo-ondo garbitzen! Joxeanek [Citraën] Dyane bat zeukan, eta kapota kendu, eta zutik ni, Zarautzik Getariara joaten ginen, My Flower-era [erretegia], itsasertzetik, Isadora Duncan bere Bugatti hartan bezala... Joxean, Juan Martin Elexpuru, Txiliku... Tira, Txiliku bertakoa zen, ez zuen gurekin bazkaltzen, eta harremana diferentea zen. Baina esan dizut, nik Joxean jarri behar dut lehenengo, benetan harekin ikasi nuelako, gozatu nuelako, kariñoa geniolako batak besteari... Ez daukat hitzik, ze *Astoa ikusi nuen... Txoria nintzela...* bera zen, Joxeantonio! Eta *Plisti-plasta plisti-plaust!*, Juan Martin [Elexpuru].

### Garai hartantxe hasi zinen idazten.

■ Eta nola ez nintzen, bada, hasiko euskaraz idazten, giro horretan?! Idazten hasi nintzen, ikastolako haurrei istorioak kontatu ahal izateko. Gerroago, 80ko hamarkadaren hasieran, hemengo giroa normalizatzen hasi zenean, lehen lanak argitaratzen hasi nintzen. Elkar eta Erein argitaletxeak sortu ziren, eta Elkarren laster jakin zuten nik haurrentzako ipuinak idazten nituela, eta eskatu egin zizkidaten, argitaratzeko. Nik esango nuke nire ipuinak ezberdinak zirela, ordu arte euskaraz idazten zirenak ez bezalakoak. Nire ipuin haietan nabarmena da Gianni Rodariren influentzia.

**Ikaragarri zabaldu zen Gianni Rodariren izena haur eta gazte literatura idatzi nahi zutenen artean, eta baita irakurleen artean ere.**

■ Nik haur literatura modernoa deskubritu berria nuen. Harrituta geratu nintzen. Gianni Rodari! Eta haren *Fantasiaren Gramatika* eta *Telefonozko ipuinak*. Eta Christine Nostlinger, eta *Historia amaitezina* idatzi zuen hura [Michael Ende], eta Roald Dahl... Mundu berri bat deskubritu nuen. Nire erreferentziak *Platero y yo* [Platero eta biok, Juan Ramon Jimenez], *Mujercitas* [Neskatxak, Louisa May Alcott] eta halakoren batzuk ziren. Eta *Tom Sawyer*, jakina! Eta *Altxor uhartea!* Baina hauek nire anaiaren liburuak ziren! Eta bat-batean haur literatura moderno oso interesgarri bat deskubritzea ikaragarria izan zen! Ze tratamendu! Ze gai! Ze espiritu kritikoa! Ze umore!... Benetan, hura beste kontinente bat deskubritzea izan zen, non zu ere sar zintezkeen, idazle.

**Amets uhinak, Kaskarintxo, Elisabete lehoi domatzailea, Joxepi dendaria, Partxela, Txan fantasma... 1982-84 artean publikatu zenituen.**

■ Ordu arteko nire haur literaturaren erreferentzien arabera egin nituen. Ikastolako *Astoa ikusi nuen betaurrekoekin...* kantatzen genuen giro eta garai horretan. Are gehiago, *Kaskarintxo*, adibidez, zortzi orrialdeko ipuina zen. Nik horixe neukan idatzia, eta Joxeantoniok hartu, eta luzatu zuen. Bion izenean sinatu genuen. Nire lehen lan kontzientea, hala ere, *Txan fantasma* izan zen. Lan horretan benetan izan nuen idazten nuenaren kontzientzia; idazle kontzientzia, nahi baduzu.

### Zer du Txan fantasmak, besteek ez dutenik?

■ Lehenago ere idatziak nituen lan batzuk, gaztelaniaz, eta frantsesez, baina orduko hartan beselako lan bat egin nahi izan nuen, ipuin ezberdin bat. Eta hori *Txan fantasma* izan zen. Ipuin ezberdina zen, problematika ezohiko bat azaldu bainuen. Jon Zabaletak –ilustrazioaren maisu handia, ordurako– areagotu egin zuen istorioa,

nik idatzi ez nituen elementu batzuk ilustrazioetara eramanez; bigarren edizioan, zertxobait arindu behar izan genuen irudien zera hori. Esan nahi dut, askatasuna zegoela, idazteko, eta marrazteko. Libertate izugarria.

### Orain ez dago?

■ Orduko libertaterik ez. Are gutxiago, hemen-dik kanpora. Ez pentsa *Txan fantasma* gaztelaniaz berehala argitaratu nuenik! Hemen, berriz, gauza guztien hastapen garaian ginen, Franco hil eta gero. Libre idazten genuen, eta libre argitaratzen ziguten. Orain ez da halakorik. Argialetxeak gehiago sartzen dira idazlearen obran, ez ideologikoki, baina bai formari dagokionez. Orduan, aldiz, materiala behar zen, eta gutxieneko kalitatea baldin bazuen, zuzenean argitaratzen zuten. Garai horretan-edo, Joxean [Ormazabal], eta Iñaki Zubeldia, Elkar argialetxean hasi ziren lanean, eta publikatu zituzten nire lanak, euskara aldetik orraztuta, ze ni artean ez nintzen guztiz konpetentea euskaraz idazterakoan.

### Inoren bidean mugarriak ageri dira, eta zurean, hortxe dago...

■ ...*Iholdi*.

### Nik baino lehen esan duzu!

■ Bai, bada! Halaxe da eta! *Iholdi*! Hortxe daukazu [Emakunde Saria jasotzean, *Iholdi* pertsonaiaren erreproduzio handi bat ere eman zioten, kartoiz-edo egina, koloretan]. Ailegatu zen momentu bat, feminismoak eraginda-edo, gehiegizkoa: neskak ziren pirata, astronauta, futbolari, boxeolari... Baina koska ez zegoen horretan! Rol aldaketak esan nahi zuen emakumea literaturan tratatzeko bestelako modu bat, ez neskak jartzea mutilek egiten dituzten gauzak egiten. Eta *Alex* idatzi nuen,

mutiko ezberdin baten errebindikazioa, mutiko sentiberaren aldarria. Mutiko femeninoa, alegia, ze egon badaude. Eta esango nuke andereño izan nintzen garaian gela guztietan ezagutu nuela mutiko sentiberaren bat. Horixe izan zen *Alex* ipuina.

### Euskadi Saria irabazi zuen *Alex* obrak.

■ Maitasun handiz idatzi nuen, eta kontu handiz. Mutiko sentibera da *Alex* –fantasiaz betea dago, aldi berean–, eta neska batekin elkartzen denean, neska ere diferentea da, tramankulu ortopediko bat du hankan –nire ilobak garai hartan zeukana bezalakoa–, eta hortik jo nuen, bi pertsonaiak elkartuta. *Iholdi*, berriz, poesiatik oso gertu zegoen. Dago. Ez zait gustatzen izen handiak erabiltzea, baina, poesiatik asko duela esango nuke. Askok landu nuen, eta batere presarik gabe idatzi nuen. Orain gozamenaren ematen dit liburu horiek nola idatzi nituen pentsatuta, berehala argitaratu behar nituela pentsatu gabe, irakurleari gustatuko ote zitzaizkion batere pentsatu gabe. *Apoa eta beldurra*, *Arkakusoa eta elefantea*... Ahal zen modurik xumeenean, estetika landuz idatzi nituen liburu-ruko testuak. Nire ustez, ari naiz.

### *Iholdi*, *Izaba Txikia*, *Alex*... Zure testuak, Asun Balzolaren ilustrazioak. Biko perfektua!

■ Asun Balzola! Denbora asko pasatu zen ipuin haiek argitaratzeko moduan zeudela erabaki nuen arte. Eta, bitartean, Asun Balzola deskubritu nuen. Hontza [Donostia] liburu dendaren erakusleihan ikusi nuen *Iholdi*. Eta ikusi, eta esan nion neure buruari: «Hori neu naiz!». Txapel urdina, beroki hura, galtzerdiak halakoak... «Neu naiz!». Asun Balzola! Zenbait elkarrizketa irakurriak nizekion Asuni, istripua izan zuela hogeit bat urte zituela, eta hau eta hura, eta Madrilera joan nintzen bera ezagutzera, hantxe bizi baitzen. Oso ondo hartu ninduen... Lehen bisita hark ere badu historia.





## Irakurri, hobeto bizitzeko

«Askotan galdetu didate zergatik hartu diodan gustua idazteari. Sekula ez dit inork galdetu zergatik hartu nion irakurtzeari. Gauza jakina delakoan edo. Beraz, has gaitzke geure buruari galdetzen: lehenik, zergatik irakurri izan ditugun, eta oraindik ere irakurtzen ditugun batzuek, sekula gertatu ez diren historiak, gezurrak, asmakizunak, gertaera irrealak, alegiazkoak, sarritan ezinezkoak eta, hala ere, garen modukoak egin gaituztenak; eta bigarrenik, zergatik, gainera, ausartzen garen besteei literatura irakurtzeko gomendioa egiten, besteak beste, emozioak sentitzeko modu bat delakoan, beste era batera bizitzeko, hobeto bizitzeko modu bat delakoan.»

(Mariasun Landa, *Txikiaren handitasuna literaturan*, «Irakurketa literarioaz: Zergatik zen kristalezkoa Mari Errauskinen zapata txoa», Erein, 2018)

## Zein da historia hori, jakin baliteke?

■ Beste zenbait lagunekin zegoen. Afaltzera joan ginen, eta jendaurrean kantarazi zidan. «Kantatu zer edo zer, Mariasun. Ikaragarri gustatzen zaizkit euskarazko kantak!». Eta hantxe hasi nintzen, dardarka. Eta zer kantatuko, eta ustez hobetoen kantatzen nuena, *Loa, loa*. Eta hasi nintzen, *Loa, loa, ttunturrun berde, loa, loa, masusta...* Eta, gero, «zer esan nahi du?». ¡*Horror!* Bitoriara bidean ama saldu du... *Aita gureak diru asko du, ama bidean salduta* esaten du kantuak, eta esan egin nien, eta «¡Qué horror!», haiek orduan!... Gainerakoan, bi urte joan ziren Asun Balzolak *Iholdiren* ilustrazioak egin zituen arte. Baina nik itxaron egin nuen. Asun Balzola nahi nuen *Iholdiren* ilustratzaile. Bi urteko denbora horrek elkarren lagun egitera eraman gintuen. Eta hor ere, emozio asko biltzen zaizkit... Ezagutzen duzu liburu hau?

## *Txikiaren handitasuna literaturan... Bai, baditu urte batzuk, zaharra ez bada ere.*

■ Bizitzak unibertsitateira eraman ninduen, eta unibertsitateak kongresuetara, eta artikulu eta ponentzia asko idaztera. Liburu horretantxe bildu nituen batzuk, baina inork ez du horretaz ezer esaten. Pamielan [argitaletxea], *Puertas y ventanas abiertas* argitaratu nuen, gaztelaniazko artikuluen bilduma bat. Oso pozik nago liburu horrekin ere, nire lagun argazkilari baten argazkiak ere erabili nituen... baina ez da batere saldu. Gauza asko, eta onak, egiten dira, baina ez dira saltzen; biltegian geratzen dira, hautsa biltzen.

## Asun Balzola hil ondoren, Elena Odriozola hartu zenuen literaturan bidaide.

■ Sentiberatasun eta estetika aldetik Elena sentitzen nuen gertuena. Hor beste *Iholdi* bat sortzen da... Irudiak ikusi eta badakizu Elena dela egilea. Asunekin bezala gertatzen da. Beharbada, ilustra-

tzaile on guztien kasua da: nahikoa da haien irudi bat ikustea, egilea ezagutzeko. Horixe da Elenaren kasua. Arte izugarria daukate.

## *Iholdi-ak beti hor diren arren, Galtzerdi suizida eta Krokodiloa ohe azpian agertzen dira zure libururik salduenen zerrendan...*

■ Obraren literaturtasuna eta komertzialtasuna ez baitira bereizten. Demagun, gaztelaniaz gehien saldu dena *Elefante txori-bihotza* da; alde handiarekin, gainera. Latinoamerikan, besteak beste. Ez da *Harry Potter*, edo Elvira Lindoren liburu bat, baina asko saldu da. Eta, kasu honetan, kalitatea ere badu ipuinak. Asko estimatzen dut testu hori. Hala ere, literaturtasunari begiratuz gero, nik ere garai bateko bide hasiberri hura goratuko nuke. Baina berriz diot, literaturatik ari naiz, ez saldu diren aleen kopuruari begira. Beharbada, *Iholdi* ez da zuk uste bezainbeste saldu, zabaldu ere ez. Aldiz, *Krokodiloa ohe azpian* ikaragarri saldu zen. Espainiako saria jaso zuen [2003], eta horrek asko lagundu zion, jakina. *Galtzerdi suizidari* dagokionez, berriz, uste dut hor ere oso ni neu sentitzen naizela. Trapu zahar bati, galtzerdi bati, bizitza eman nion, eta nire filosofia ukituak ere bertan txertatu nituen: malenkonia, heriotza... eta amodioa, jakina.

## *Galtzerdi suizida eta Krokodiloa ohe azpian liburu ezagunetan, beste artista handi bat duzu ilustratzaile: Antton Olariaga...*

■ Anttonek [Olariaga] bestelako sentsibilitatea du, baina artista hutsa da bera ere. *Galtzerdi suizida* ilustratzeko Antton nahi izan nuen. Bane-kien Anttoni grazia egingo ziola bere buruaz beste egiten duen galtzerdiaren istorioak, edo, hobeto esan, bere burua botatzen duenarenak.

## Hainbat hizkuntzatarara itzuli dizkizute liburuak. Zer eman dizu zure obra atzerrian zabaltzeak?

■ Itzulpena argitaletxeek bideratu duten kasuetan, oso oihartzun txikia jaso dut. Onenean, beharbada, zera esan izan didate: «Txinerara itzuli dute zure liburua!». Eta nik, «O, a ze ilusioa! Bidaliko didazue ale bat, gordetzeko bada ere?»... Ez dut inoiz lortu. Ikusi ere ez. *Ipurtargiak paradisu*an, adibidez, gaztelaniatik txinerara itzuli zuten. Ikusi ere ez dut egin txinerazko liburua! Azken urteotan, Espainiako argitaletxe handiekin –errekurtsuok dituztenekin– mugitu naiz itzulpenak gauzatzeko garaian, zeren hemengoekin ez dago bide handirik egiterik. Egile eskubideen ordainak jaso ditut, baina horiek ere sekula ez dira ikaragarriak izan. Hala ere, itzulpenaren ale bat izateak berak kristoren ilusioa egiten dit. Badut aleren bat arabieraz, besteren bat grekoz, errusieraz... grafia ezberdinetakoak, esan nahi dut. *Krokodiloa*... errusierara itzuli zutenean, Moskura ere joan nintzen. Hango argitaletxe batek nirekin kontaktatu zuen, itzuli zuten, eta Moskuko liburu azokan aurkeztu genuen. Oso esperientzia berezia izan zen. Bakarrik bidaiatu behar izan nuen, eta beldurrez joan nintzen. Duela hamar hamabost urteko kontuak.

#### Usteko nuen *Errusika* obrarekin joango zinela.

■ *Errusikaz* zu beste inor ez da gogoratzen! Kar-kar...

#### Kar-kar...

■ Gure belaunaldiko maisu-maistrak beste inor ez dela hartaz gogoratzen, esan nahi dut! Kar-kar... Hala ere, *Errusikak*, bere tamainan, sekulako arrakasta izan zuen. Garai hartan askoz ere liburu gutxiago argitaratzen ziren, eta, bestalde, oso ipuin polita iruditzen zait. Batzuetan, hartu izan dut, eta horixe iruditu zait: xarmanta. Arrakasta izan zuen, bai, baina hartaz gogoratu? Inor ez. Kar-kar... Tira, gertatu izan zait baten batek ni


kalean geldiaraztea, halako eta halako direla esan, eta, gero, beren liburu kanonikoa *Txan fantasma* dela esatea.

#### Esanak esan, irakasle izan zara ogibidez. Ez ote dago literatura idatziz bizitzerik?

■ Ez naiz inoiz saiatu, ez zait inoiz interesatu idazle profesionala izatea. Norberak ezagutzen du, neurri batean, bere burua... Neurri batean. Kar-kar... Badakit bakarrik idazten dudanetik bizitzeak, edo bizi beharrak, asko larrituko nindukeela. Asko. Kanpoko lanak orekatu nau. Hala ere, beti eutsi diot idazteari. Bestelako lan bat egiteak, egia da, mugak ditu; idazteko denbora galarazten dizu, adibidez. Baina irakaskuntzak, segurtasun ekonomikoaz gainera –baina hori ez da inportantea izan–, oreka pertsonala eman dit. Diziplina, ze beharbada ni neu ere ez naiz oso diziplinatua neure buruarekin.

#### Ez? Kar-kar...

■ Ez. Hurrengo egunerako utziko nuke. Batean, «gaur buruko minez nago», esango nuke. Bestean, «halako etorri da, Espainiako errege emeritua», adibidez. Kar-kar... Kanpoko lanak, berriz, konpromisoa, ardura, erantzukizuna eskatu dizkit, ordutegi bat eman dit, bizitza egituratu dit: jaiki beharra, gauzak ondo egin beharra... Esan dizut, ez naiz inoiz saiatu bakarrik idaztetik bizitzen. Kanpoko lanak, gainera, soziabilitate puntu bat ere eskaini dit, normalizazio puntu bat. Kanpoko lana egin, eta lasai erretiratu ahal izan naiz etxera, eta irakurri, eta idatzi, nahi dudanean; edo gaua idazten eman... Nortasunaren araberrako gauzak dira, baina niri, behintzat, kanpoko lanak oreka eman dit. Hainbat jubilatutako ezagutzen ditut, eta askotan entzun izan diet laborterapiatz hitz egiten.



## Laborterapia?

■ Norberaren denbora terapeutikoki erabiltzea, terapia okupazionala. Lanari uztea ez da txantxetako, egiturarik gabe gelditzen zara. Kanpoko diziplina kentzen dizutenean ez dakizu oso ondo zeri heldu. Ni laborterapiaren aldekoa naiz. Beste asko, aldiz, ez. «Erretiroa hartu dut, ze ondo!». Iguar ni ez. Lan batzuk egin behar izatea behar dut. Bihar, halako. Etzi, halako. Hurrena, beste zerbait. «Lurrerako kablea» esaten diot...


### «Lurrerako kablea», adituta nago lehenago ere. Adierazteko modu egokia, horratik!

■ Beldurra ere bada –beldur intuitiboa, nahi bazu–, lurrerako kable hori gabe hegan joango ote naizen. Nire kasuan, lurrerako kablea behar dut. Hortxe dago errealitatea, eta horrixek heldu behar diot. Eta zure galderari erantzunez, esan dut: irakaskuntza gustatu egiten zait. Batzuetan kostatu egiten da, zeure burua erakutsi behar duzulako –erakuste fisikoa ere bada–, baina, hortik aparte, zoragarria iruditu zait irakastea.

### Terapia okupazionala eta beste, zu aspaldi jubilatut zinen. Irakasle lanetik, bederen.

■ Bai. Nire inguruan, jubilatut diren asko «etapa berri bat» esaten hasten dira, eta mila gauzatan sartzen dira. Nik ez, nik ez nuen etapa berririk hasi, idazten jarraitu nuen. Hitzaldiak egiteko ere deitzen didate, eta joaten naiz, eta hitz egiten dut literaturaz... Nire kasuan, jarraipena izan da, gustura egin dut lan, eta sintoma oso ona iruditzen zait. Askok gustatu zait irakaskuntzan lan egitea, jakintza transmititzea. Haur eta Gazte Literatura irakasten nuen eta, azkeneko urteetan batez ere, asko disfrutatu nuen. Oso libre nintzen eskolak antolatzeke, libre nire pentsamendua adierazteko... Gozamina. Egia da horrekin batera bada-goela alde burokratiko bat –areagotzen ari dena, gainera–, irakasle guztiok nazkatzen gaituena.

## Zergatik idatzi



«...itxuraz hain erraza den galdera horri emandako erantzun pertsonal bakoitza baldarra da ia beti, nahasia, frustragarria. Beti geratu ohi da gaizki erantzun izanaren sentsazioa, oraindik ere –urteak gorabehera–, ez baitakigu zergatik idatzi dugun eta zergatik jarraitzen dugun idazten, seriooki, zailtasunez, diziplinaz eta batzuetan euforiaz, gezurrak, gezur asko, inoiz gertatu ez diren istorioak. Eta egonezin hori handiagoa da agian haur literatura idazten dugunongan, fantasia, absurdoa, jolasa, samurtasuna, abentura, umorea nagusi diren eremu horretan ari garenongan. Niri dagokidanez, txoribihotza duten elefanteen istorioak, Errusiara bidaiatu nahi duen arkakuso dantzariak, bere patu tristea onartu ez eta, suizidak legez, laugarren solairutik behera beren burua botatzen duten galtzerdiak, greba egiten duten bizikletak...

Bai, egia esan, galderak erantzun zaila eta konplexua du.»

(Mariasun Landa, *Txikiaren handitasuna literaturan*, "Nire bestiaro pertsonala", Erein, 2018)

**Hara eta hona zabilta oraindik, hitzaldiak egiten-eta.**

■ Urtero deitzen didate master eskola batzuk emateko, eta gustura joaten naiz. Hiru orduko saioak izan daitezke, baina urtero egiten dut. Eta egin eta gero, horixe esaten diot neure buruari: «Orain ere egin dugu!». Kar-kar... Hala ere, memoria kontu hori izaten dut zalantza, asko sufriarazten digu izen bat esan nahi, eta ez ateratzeak. Asko sufritzen da, baina zahartze prozesuaren barruan onartu behar dugu. Halaxe gertatzen zaigu laguneren artean ere. Hitz egiten hasi, eta jira eta buelta, baten bat ezagunaren izena ezin esan! Gaitz orokortua da.

**Hori, batetik, eta bestetik, berriz, maite izan duzun jendea hiltzen zaizu. Solasaldi honetan bertan ere, hortxe Joxean Ormazabal eta Asun Balzola...**

■ Uste dut ez zigutela heriotzaz abisatu. Beti jasotzen dugu propaganda bera, dena da estetika eta zimurrik ez izatea... Txorakeriak! Hirugarren edo laugarren mailako gauzak! Askoz ere larriagoa da inguruko jendea hiltzea, lagunak galtzea. Edo zeure burua motelago ikustea, edo gaixorik, edo bizitza aldatzen dizun gaitz batek jota. Eta, esate baterako, esaten denean «hainbeste urte bizi» –urte asko baino gehiago bizi, alegia–, nik ez dakit hainbeste urte bizi nahi dudan! Bakarrik egoteko bada ez, behintzat! Zer egin behar dut nire garaiko lagunik gabe?!

**Haur eta Gazte Literaturaren Galtxagorri elkarteak sortzen parte hartu zenuen. Irakurzaletasuna zen helburuetako bat, eta ez dakit zertan den hori, baina irakurle-klubak sortu eta ugaltu direla bai.**

■ Eta jendeak deitzen dit, joateko. Bitara gonbidatuta nago... «Jendea» esan dut, baina emakumeak dira. Literatura feminizatu egin da. Gizonek esparru hori utzi dute, eta emakumez bete da. Gizo-

nek, edo mutilek, nahikoa dute mundu digitala. Literatura, gizonezkoek utzitako tokia da. Gizonek abandonatu egin dute, eta hartu dute emakumeek. Arlo askotan gertatu da. Ontzi-aldaketa bat da, batetik bestera joanarazten da emakumea.

**Hamaika sari eta errekonozimendu parrasta jasoa zara. Tartean, 2020ko Idazle Galego Unibertsala ere izendatu zintuzten.**

■ Kar-kar... Azkeneko hauteskundearen ondoren, ez dakit, bada! Kar-kar... Lehenago, [2016] Rosalia de Castro saria ere eman zidaten, beste hiru idazlerekin batera: Cabo Verdeko Dina Salustio, Almudena Grandes espainiarra eta Alex Susanna katalana.

**Alegia, esan nahi nuen Idazle Galego Unibertsala izendatu zintuztela, baina, adibidez, Euskal Idazle Unibertsalaren titulurik ez dizutela eman oraindik...**

■ Otsailaren 27an Bilboko Gutun Zuria Letren Nazioarteko Jaialdiaren makila emango didate. Kar-kar... Zer edo zer da, ezta? Ondoan izango dut Juan Mayorga, eta horrek berak ilusio handia egin dit. Ez dakit askok ezagutuko duten Mayorga, baina nik, behintzat, asko estimatzen dut, eta idazten duena irakurtzen saiatzen naiz.

**Sari zerrenda handi horretan –literarioak, gutiz gehienak–, bestelakoa begitانتzen zait aurtengo otsailaren hasieran jasotakoa, «Berdintasunerako Emakunde Saria».**


■ Baliteke, bai, sari hori bestelakoa izatea, zeren sari horretan nire arlo ia guztiak biltzen dira: militantea, adibidez. Izen ponpoxoa da, baina hala naiz ni, militantea, Frantzia egon nintzenetik. Handik hona etorri eta taldeak eratzea besterik ez neukan buruan; feminismoaren inguruan, esan nahi dut.

## Garai hartako *Argia* eta *Anaitasuna* aldizkarietan zure sinadura ikusi dugu...

■ Gure militantziaren parte izan zen han idaztea. Amaia Lasa, Inaxi Lazkano eta hirurok ginen. Taldetxoa osatu genuen *Argia*-n idazteko. Gure orrialdeak eguzkia zeraman goian, alde batean. Antton Olariagak egin zuen eguzki hori, Joxan Artzek eguzkia femeninoa zela eta hau eta hura esanda... Kar-kar... Gutxi irauin zuen gure kolaborazio hark; baina egin genuen, behintzat. Lidia Falconen Alderdi Feministaren tesiak itzultzen jardun genuen! Eta hura lana! Ni ez nintzen gauza, baina Inaxi [Lazkano] bai. Nik ahal nuena laguntzen nion. Feminismoaren alde ari ginen lanean. Leioan 1977an egin ziren jardunaldietan [Euskal Herriko Jardunaldi Feministak] parte hartu genuen, eta Donostian emakume talde bat ere osatu genuen. Ez ginen asko, baina izena genuen oso simbolikoa: *Femmes en Lutte*.

## «Emakumeak Borrokan»...

■ Bai, eta, izan ere, *las borrokas* deitzen ziguten. Hemengo mugimendu feministaren hastapenak izan ziren eta inoiz ez diot utzi borroka horri; gaur egun, oraindik, Martxoaren 8ko manifestazioak joaten naiz. Emakunde Saria dela-eta, gauza gehiago ere biltzen du barruan, zeren hogeita bost urte baino gehiago daramat haur eta gazte literatura eta sexismoa lantzen, eta ideologia eta generoa. Horregatik esaten dizut Emakunde Sarian gauza asko biltzen zirela... Eskularruaren konparazioa egin nezake, edo galtzerdiarena: jantzi, eta neurri-neurrikoa duzu, ez handiegia, ez txikiegia. «Idazle Unibertsala» esan duzu lehen, eta asko da inork zu «idazle unibertsala» izendatzea; baina Emakunde Saria, berri, nire neurrira egindakoa dela esango nuke.




**Saria jasotzerakoan, beste testu labur bat irakurri zenuen, ohi duzunez.**

■ Bai. Loti Ederraren ipuina hartu, eta neure testu bat idatzi nuen, labur-laburra, oso nirea. Bat-batean atera zitzaidan, eta saria jasotzerakoan irakurri nuen. Loti Ederrak begiak irekitzen dituenean ikusten duenaz ari naiz. Horixe da nire estiloa, eta nire umorea. Estilo jakin batek harrapatu ninduen, edo estilo baten jabe egin nintzen, edo uste dut narrazio laburretan nire beti-betiko errekurtsioak erabiltzen ditudala, eta jendeari gustatu egin zaizkio.

**Sarietan, *Joxepi dendaria* liburuak ekarritakoa ere xelebrea da...**

■ Eta nola idatzi nuen nik ipuin hori?! Gai unibertsal bat ukitzen ari nintzela batere konturatu gabe! Ume guztiek erraz ulertzen dute auzia: denda txikiak, batetik, eta saltoki handiak, berriz, bestetik. Gure izebaren historia da, Erreterian denda txikia zuenarena. Joxepi baitzuen izena gure izeba hark. Gaztetxotan, batzuetan, laguntzera joaten nintzaion. Gogoratzen naiz Oiartzungo baserritarrak-eta joaten zitzaizkiola berdura eramatera. Denda txikia zen, eta orduan, eta ondoan, Mamut

## Begiak zabal-zabalik



«Diotenez, basoaren sakoneko gaztelu hartan, Loti Ederrak begiak itxita zituen, baina ez zegoen lo, itxurak egiten zituen, printzeren baten etorreraren zain zegoen.

Eta hotsen bat entzuten zuenean, adar batzuen kirrinka, haize xuxurlaria edo printze galdu baten ezkutuko urratsak izan zitezkeenaren oihartzunak, bere lo sakona areagotzen zuen. (Hori bai, zurrungarik egin gabe, halakorik ez baita sekula gertatzen printzesa lotien ipuinetan). Izan ere, esana zioten printzerik ez zela gelditzen begiak ondo irekita zituen emakume baten ondoan.

Harik eta egun batean, begiak erdi ireki eta zutitu zen arte. Ingurura begiratu zuen, irribarre egin eta dantza-pauso batzuk egin zituen, ilundu arte.

Hortik aurrera, istorioak uste gabeko norabideak hartzen ditu. Batzuek diote Misoginia Paleontologikoari buruzko doktoregoa atera nahian dabilela; beste batzuek karabana bat alokatu eta Liberaliako lur ezezagunetan barrena dabilela. Bada esaten duenik zibiletik ezkondu dela lehen Edurne Zuri deitzen zioten psikoanalista batekin.

Izan ere, batek begiak irekitzen dituenean, ezin ditu itxi.»

(Mariasun Landa, *Berdintasunerako Emakunde Saria* jasotzean, 2024)



[saltoki handia] ireki zuten. Istorioa idatzi nuen, euskaraz publikatu zen eta, gero, koedizio batean atera zuten, galegoz, katalanez eta euskaraz. Eta zer da, eta handik hogeitau urtera-edo, baten batek Valentzian [Manises] arretea eman zion ipuin hari, eta hasi ziren autorearen bila, eta atera zuten nire arrastoa, eta gonbidatu ninduten. Edizio berri bat argitaratu zuten. Eta aurkezpena egin genuenean, hura jende ilara! Nik liburua sinatzea nahi zuten denek! Ezta Toti [Martinez de Lezea] izanda ere! Kar-kar... Edo Harry Potteren egilea!

**«Mariasun Landa: haur eta gazte literatura idazle». Zuzena da? Edo, «idazle», esan beharko genuke, beste gabe?**

■ Sistema literario guztietan klizez eta etiketaz mugitzen gara. Dena da etiketa: «nobela beltza», «fantasia», «zientzia fikzioa»... Etiketatzen zaituztenetik, zaila da ñabardurak egitea. Hala ere, benetan nire obraz interesatuta dagoenak badaki hainbat artikulua idatzi ditudala, eta horietaz oso pozik nagoela. Unibertsitate irakasle izateak horretara eraman nau, gogoeta egin eta idaztera, eta hilabeteetako lana izan dut testu horiek idaztea. Gogoratzen naiz, behin, kongresu batean irakurtzeko, «Umorea eta emozioa haur eta gazte literaturan» ponentzia idatzi nuela. Norberak daki zenbat kostatzen den txosten bat, edo artikulua bat, idaztea. Beste behin, «Azeituna eta Txotxa» idatzi nuen, erraz, baina egun hura oso zorionekoa izan nuen. Liburuan [*Txikiaren handitasuna literaturan*] daukazu.

**Genero minorra da oraindik haur literatura?**

■ Estereotipoak ez dira egun batetik bestera aldatzen, ezta belaunaldi batean ere. Baina uste dut minortasun hori gaintzen ari dela. Hala ere, niri batere gustatzen ez zaidana da zera hori: «Haurrentzat idazten du!». Ezin dut eraman, zeren, idazten duzunean idazten ari zara, haurrentzat,

haur horren gurasoentzat, haren osaba-izebentzat... Nire iritziz –eta hau nire iritzia da–, gauzak asko aldatu dira *Harry Potterez* gero. Idazleak [J.K. Rowling] obra handia egin du –bost liburuki, ez da txori-kaka!–, asko idatzi du, asko irabazi, eta horren aurrean jendea makurtu egiten da, amigo! «O, urrezko zekorra!». Lehenago, idazleek beren obra egiten zuten, eta, tarteka, obra txikiagoa balitz bezala, haur eta gazte literatura. Eta, bestalde, dirua ematen zuten, haur literatura eskolan saldu egiten baitzen. Eta idazten zuten, baina ez helduen literatura idazteko exijentzia berarekin. Baina *Harry Potter* mundu mailako fenomeno gertatu dela ikusita, eta autorea idazle aberatsenetako bat bihurtu dela... aintzakotzat hartzen hasi dira. Gizarte honetan halaxe irabazten da ospea.

**Noizko «Mariasun Landa liburutegia», zure lan guztiak bilduko dituen lanen bilduma, adibidez?**

■ Atzerriko idazleren batzuek esan izan didate, bai. Baina, hemen, horretarako, lehenago hilda egon behar zara. Beraz, bilduma hori, ni hil ondoren-edo.

**Bitartean, Erreterriako udalak zure izena jarri dio eskola bati, oker ez banago, eta zure izena daraman literatur lehiaketa bat ere hortxe du beti...**

■ Koldo Mitxelena Institutuak eskola txiki bat anexionatu zuen, Pio Baroja izenekoa; eta, orduan, hari izena kendu, eta nire izena jarri zioten. Pio Barojari izena kentzea ere?! Hasieran ez nengoen oso seguru, baina, gero, Pio Baroja izena leku askok dutela esan zidaten, eta egia da, eta aldatu zioten izena. Emakunde Saria eman zidatenean ere, hantxe ziren Erreterriako alkatea eta zinegotziren bat. Oso atseginak. Hurrena, Erreterrian, Eider Rodriguezi helduko zaio ohoreak jasotzeko txanda! Nire izena daraman literatur lehiaketa hori dela-eta, hamabigarren edizioa du aurrean!

### Azken hitza: Jakiunde. Euskal Herriko Zientzia, Arte eta Letren Akademiako kide zara...

■ Pedro Migel Etxenikereren proiektua izan zen, Eusko Ikaskuntzaren ekimenez sortua. Euskal Herriko jakinduria guztia bilduko zuen akademia bat! 2007an sortu zenean, hemendik kanpo errekonozimendua jasotakoak ez ginen asko, eta hortik hasi zen Jakiunde kidez hornitzen. Emakumeak hor presente egon behar duela izan da nire borroketako bat. Eta zaila da, Akademiako gizonetzkoari inoiz ez zaizkio-eta nahikoak iruditzen emakumearen merituak. Xelebrea da. Kostatu egin da emakumea hor sartzea, eta oraindik ere, heren bat da hor emakumezkoa! Niretzat nabarmena zen: Akademia ez zen gizartearen isla, androzentrikoa zen. Orain, behintzat, erakusketak egin du Jakiundek San Telmo Museoan [24 emakume zientzia, arte eta letretan]. Eta bada programa pilotu bat, arrakastatsua: Jakin-mina du izena.

### Gazteei zuzendua...

■ Bai. Zenbait hitzaldi eskaintzen dira, gai interresgarriak eta hizlari onak aukeratuta. Eta asistentzia boluntarioa da. Alegia, joaten diren gazteak ez dira eskolatik ez institututik etortzen, beren kabuz izena emanda baizik. Hitzaldietan izana naiz, eta aurkezpena ere behin baino gehiagotan egin izan dut. Eta gogoratzen naiz nola emozionatu nintzen egun batean. Txinatar bat-edo zen hizlaria, matematikaria, eta ingelesez hitz egin behar zuen. Nik euskaraz egin nuen haren aurkezpena; hark hitzaldia ingelesez, eta, ondoren, ikasleen galderak egiteko aukera izan zuten –matematikari buruz, alegia–, eta baten batek ingelesez egin zizkion galderak! Orduantxe pentsatu nuen: «Zer edo zer egin dugu!». Askotan ez dugu inpresio hori izaten, ezta? «Zertarako hainbeste euskara eta hainbeste ikastola!», pentsatu izan dugu, ez gutxitan.

«Zer edo zer egin dugu!», pentsatu zenuen.

■ Heldu gara puntu batera non, nik, momentu batzuetan, harrotasuna sentitzen dudana noraino iritsi garen ikusita. Jakin-minako saio hartako momentu hura, adibidez. Nik Txinako matematikaria euskaraz aurkeztu, hark hitzaldia ingelesez egin, eta ikasle haiek –baten batek, behintzat–, galderak ingelesez! Hor behintzat, harrotasuna sentitu nuen: «Honetara ere iritsi gara!». Batzuetan ahaztu egiten zaigu nondik gatozen.

